

# **PUBLICACIONES**



### Zumaia, izena eta izana

*Imanol Azkue ibarbia*

Zumaiako Udala.

Zumaia, 2008

Zenbait urte dira Zumaiako Imanol eta Xabier Azkue anaiek beren herriko toponimia jaso, bildu, aztertu eta arautzeko lanari ekin ziotenetik. Zehazki, 2004 eta 2007 bitartean aritu ziren lan horretan Udalaren beka deialdi bati erantzunez. Ikerketa lan horren emaitza, Zumaiako 2100 lekuren izenak jasotzen dituen datu basea dugu, beste hainbeste ahozko lekukotza eta 8.100 datu dokumentalen bermeaz sendo horniturik.

Eta datu dokumentalen bilketa egitea Imanoli egokitu zitzaion bere garaian. Beharra ulerturik, baina egitekoaren muntaz ere ondo jabeturik, Udalaren artxibategietan murgiltzeko deliberoa hartu zuen, bertako paper zaharretan toponimoak ez ezik, pasadizoak, albiste historikoak eta beste zenbait altxor ere kausi zitezkeela antzemanik.

Toponimia ikerketa hutsak, bere hartan, ezin jaso zitzakeen Zumaia-arentzat eta zumaiarren memoria historikorako garrantzi handikoak diren bestelako hainbat eta hainbat informazio. Ez zen horretarako leku egokia. Baina Imanolek horiek guztiak aparte jasoz joan zen, pazien-

tziatz, perspektibaz eta –hori da inportanteena– herri maitasunez.

Ikerketa lan haren emaitza Zumaiako mapa toponimikoa izan zen, 2007an argitaratua eta herriko eskalako toponimia arauz eta zuzen hiritarren artean normalizatzeko –normal bihurtzeko– bide eraginkor izateko pentsatua. Baina ez zen nahikoa. Alde batetik, ikerketan jasotako leku izen guztiak ezin dira sartu 1:10.000 eskalako mapa batean eta, bestetik, Imanolek bildutako beste informazio asko eta asko nonbait jasotzea komeni zen, ahanzturan zokoraturik gelditu ez zitezen. Toponimia normalizatzeko beharrezkoa izanik ere, Zumaiako historia ere gaurko zumaiarren memorian eguneratzea noizik behin egin beharreko eginkizuna delako, herriko kohesioak eta zumaiar kontzientziak bizirik iraungo badute...

Eta horixe egin digu Imanol Azkuek bere azken lanarekin: *Zumaia, izena eta izana*, herriko Udalak Kuxaren laguntzaz, 2008ko maiatzean argitara emana. Liburuaren egitura ondo bilatutako efektua sortzeko pentsatua dago. Zenbait kapitulutan

zehar, Zumaiako eremu fisiko desberdinak –neurri handi batean sinbolikoak ere badira– bisitatuko ditugu Imanolen hitz lau dotorearen eskutik. Bidaian zehar eta leku izenak aitzaki izanik, Zumaiako gune eta zoko guztiak bisitatu joango gara eta, aldi berean, haietan jazoriko gertakari historikoak, aldaketa urbanistikoak, desagerturiko eraikinak, bizi izaniko pertsonaia aipagarriak... ere ezagutzeko aukera izango dugu. Kapitulu bakoitzaren amaieran, herri memoriarako interes handikoak izan daitezkeen beste testu batzuk tartekatzen zaizkigu: elkarrizketa etnografikoak, gertakari historikoak, pertsonaien glosak... Bereziki inpaktatu gaituzte beren maitagarrian, Pakita Porrajaren eta Pako Rataren historiek, Txoritxiki, Azarola edo Aita Mari bezalakoak albo batera utzi barik, noski. Gertakari historikoen artean atxikitzeak iruditzen zaizkigu, adibidez, 1930eko estropada gogoangarrien berria eta 1941eko tren istripuarena...

Imanolek euskaraz idazteko duen trebezia eta gaitasuna izaera literarioagoko beste zenbait lanetan frogatua du lehendik. Ordea, oraingo saio honi ere aitortu behar zaio duen balio literarioa, ikerkuntzaren munduan gero eta gutxiagotan aurkitzen duguna. Lanaren helburuen zerbitzura Imanolena bezalako luma bat izatea, herri gutxik goza dezaketenen luxua da eta Zumaia bera zoriondu behar dugu horregatik. Aparteko aipamena merezi du, azkenik, liburuaren gauzatze formalean jarritako arretak. Roberto Gutiérrezen laguntzaz, Imanolek berak “mimo handiaz” pentsaturiko diseinua du

liburuak. Ibilbideen testua paper zurriaren gainean doa beti, alboetan argazki txikien laguntza duela. Atal bakoitzaren hasieran, orrialde bateko argazki handi batek ilustratzen digu datorrena, bere kontrako orientazioak liburuaren segida apur batez eteten duena, hala ere. Kapitulu amaierako testu etnografiko, historiko eta abarrak, koloreko paperaren gainean doaz, argazkiez lagundurik eta atal desberdin batean gaudela grafikoki erakutsirik. Testuetako leku izen guztiak letra beltzez markaturik ageri dira. Azalaren kolore gorri iluna ere ongi hausnarturikoa da: ezin zen bestelakoa izan, fundazio izena *Villagrana de Zumaya* duen herri eder horretarako. Amaieran, leku izen guztien zerrenda alfabetikoa dator, aipatuak izan diren orrialdeak adierazirik.

Egilearen anaia Xabier Azkuek hitzaurrean dioen gisan, zumaiar izateko zorterik ez daukagunoi ere *inbidia*, *pena* eta *poza* nahasten zaizkigu Imanolen lanaren irakurketan murgiltzean. *Inbidia*, geure herrietan ere nahiko genukeelako era honetako herrigintza tresna eraginkorrrak; *pena*, bizi dugun ongizatearen gizarte eroso honetan gure herriak elkar ezagutzen ez duguneko “itzalitako urbanizazio baketsu” bilakatzen ari direlako; *poza* ere, noski, panorama indibidualista etsigarri horren aurrean, beren herria maite dutelako era honetako lanak aurrera ateratzeko gauza denik badagoela erakutsi digulako Imanol Azkuek.

Patxi Galé  
2008ko uztailaren 25a

### Erronkari eta Ansoko toponimiaz

*Juan Karlos Lopez-Mugartza*

Mendaur bilduma v, Nafarroako Gobernua-Euskaltzaindia, Iruñea-Bilbo, 2008.

Liburu mardula apailatu du Juan Karlos Lopez-Mugartza Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak: 741 orrialde ditu, aztertutako alderdi osoa hartzen duen kanpoko mapa kolorezko zehatz ederra eta datu altxorra den CDa. Kanpoko mapa diot liburu barnean ere, han-hemen, badirelako zati mapak, tamaina politekoak, ordenagailuz txukunkiro moldatuak. Inprimatutakoari dago-kionez, Txomin Peillen euskaltzainaren hitzaurrea dugu, egilearen beraren «irakurleari» izeneko kapituluxka, kokapena (hemen ere kolorezko mapa eder pare bat dago eta zuri-beltezko beste hirugarren bat), informatzaileen zerrenda, lau atal nagusi, eta *corpora* toponimiko, antroponimiko eta morfologikoak. Ondoren goitixego aipatu ditudan zati mapak daude eta, hauen gibelean, bibliografia luzea. Bukaera, «agur eta ohore» deritzan atalñoa, doktore tesiaren zuzendari izan zen Henrike Knörr katedradun eta euskaltzain zenduaren omenez egina da, liburuaren hastapeneko eskaintza bera bezala. Bistan da zenbat estimatzen zuen autoreak maisu izandako Gasteizko irakaslea.

Egia erran behar badut, ez nau harritu lanaren luze-labur luzeak, egileak hasieran erraten duen bezala 2006an Gasteizko Filologia eta Geografi-Historia Fakultatean aurkeztutako doktore tesi mardula delako, hots, haren bertsio laburtua, bere gotorrean ere. Lopez-Mugartzak lanik aski izan duke hemendik eta handik mozten eta aitzurrak sartzen, lehen bertsio handi hartatik franko manaiukorragoa den honetara, liburura, iristeko. Egia erran, eta iruzkin honen bukaeran ikusiko dugun bezala, holako soilketa ez da izan CDan.

Ikerketaren bihotza diren lau atal nagusietako lehena tesia zimentu sendoen gainean altxatzeko baitetzpadakoak diren alderdi teoriko-metodologikoei eskainia dago, eta bigarrenean ekialdeko mugako historiaz eta geografiaz diharduka. Hau ongi dago, egokia da, baina egileak oin-oharretan sartzen dituen testuak, maizxko agirien transkripzio hutsak direnak, luzeegiak dira.

Hirugarren atalari «Ekialdeko mugako hizkuntzez» deritza, eta, tamalez oraingoan, aitzinekoa baino aise laburragoa da (hogeita bi orrialde). Bertan erronkaria hartzen da

solasgai: bereizi izan diren aldaerak eta historian zehar eduki dituen hiztun kopuruez mintzo zaigu Lopez-Mugartza. Laugarren kapitulua liburuaren mami eta muina dela erran daiteke, Erronkaribarko eta Antso ibarreko toponimoen hizkuntza azterketa burutzean autoreak bere iritzi eta usteak azaleratzen baititu, leku izenak eremu semantikoen arabera aztertzean. Hots, bestek errandakoa ikusirik pentsatzen duenaren berri ematen digu hemen, nire ustez zenbait aldiz labur gelditzen bada ere. Pentsatzekoa da luzatuz gero, autoreak nahi zuen guztia erran balu den baino hagitzez potoloagoa izanen litzatekeela liburua.

Laugarren atal horren barnean, jarraian, Erronkari eta Antsoko toponimoen morfologia aztertzen du: leku izen «erromantzatuek» hartzen duten artikulua generoa eta, bereziki, atzizkiak, «paratzizkiak» eta lexema autonomoak. Ez da hau lekua horietaz bana-banaka mintzatzeko, baina iruditzen zait azken urteotan argia ikusi duten zenbait lan falta direla, eta aipatzen direnak ez direla beti behar bezala baliatu, alde edo aurka agertzeko. Nolanahiko gisan, atal interesgarria da biziki ikeritutako eremuko toponimoen berri zehatza jakiteko.

Laugarren kapituluaren beste azpikapituluetakoa bat fonetikari eskainirikakoa da, eta, honen barnean, garapen fonetikoez mintzo dena dugu, bustidura arakatzen duena eta azentua ukitzen duena. Segidan ondorioak heldu dira, eta, horien artean, euskal toponimoak non dauden erakusten diguten Antso, Barétous eta Aspeko mapak. Hauek garbi adierazten dute aipatu ibarrek noizbait euskaldunak izan direla, bestela ez bailitzateke ulertuko nola azaltzen diren bertan holako euskal leku izenak.

Laugarren atal nagusi horren ondortik heldu diren corpora toponimiko eta antroponimikoak zerrendak dira, egokiak aztertutako eremuko euskaldunen eta interesatuen jakin-nahia asetzeko. Corpus morfologikoa, berriz, lehenago ikusitako puntuen biltegi eta bihitegia da. Gero gorago aipatu ditudan zati mapa ederrak heldu dira eta bibliografia luzea, luzeegia aukeran.

Bukatzeko CDaz bi hitz erran nahi ditut. Zazpi atal ditu: azterketa linguistikoa, toponimoak, onomastika eta lexikoa, dokumentazioa, index orokorra, kartografia eta mapa. Irakurleak ideia bat izan dezan, lehen atalak, azterketa linguistikoak, 921 orrialde ditu, denak izkirione trinko eta hertsiarekin idatziak. Bertan, autorearen hitzetan, «liburuko kapituluaren garapen eta gainerako informazio osagarria» ageri da, hots, inprimatutako liburuan baino datu eta xehetasun gehiago daude, irudi duenez tesian sartu zuen guztia, edo gehiena behintzat, nahiz gero papere-ratutako bertsioan dauden zenbait gauza eskas diren, oker ez banago. Gainerako ataletako batzuk ere arras luzeak dira, baina, PDF formatuari esker, erraza da nahi dena xerkatu eta kausitzea. Arrunt ideia ona iruditzen zait CDa sartzeta, eta honen aldamean liburua ere izatea, zenbaitendako oraino ordenagailua erabiltzea deabrukeria handia baita. Guztiaz ere, bikoiztasun horrek, hots, liburua eta CDa, biak izateak arazoak sor ditzake lan jori eta aberats honetako materialak baliatzeko tenorean, hau da, nahasketak sor daitezke horien erreferentzia ematerakoan.

Ondoriotako erran daiteke Juan Karlos Lopez-Mugartzak ekarpen ederra egin diola euskalgintzari ere, onomastikari, dialektologiari eta aztertutako alderdiko ibarren historiari ez ezik, baina horretaz historiala-

riak arduratuko dira, ongi iruditzen bazaie. Euskal Herriaren aldameneko, ekialdeko eremuaren euskalduntasun galdua azaleratzea, nabarmen uztea txoil garrantzitsua da euskaldun guztiendako, gure historiaren parte bat baitugu hor, eta bereziki Pirinioetako euskal toponimiarekin interesa-

turik gaudenondako. Izan ere, holako lan monografikoak behar ditugu erreposki-erreposki urrats seguruak eginez joateko, geure iritzi eta usteak datuetan oinarritzeko, ez irudipenezko aieruetan.

Patxi Salaberri